



# UDA Bizia!



**DRON**  
ikaslaroen

**IPUIN KONTALARIA**  
Kabel Agimesarobe

**BASO BIZI**  
txatxilipurdia

**ZINE EMANALDIA**  
plazan

**Dantza tailema**  
txhetadantza taldea

**URPE KAKA RIAK**  
GIMKANA

**Musika tailema**  
Musika eskola

**Mendi ibilaldiak**  
herria ezagutzen


**Bertsu emanaldia**  
bertso eskolaren eskutik

**PLAZA TRINTZIKA**  
haurrentzat bermena



**BURU ARIN**  
tailema

**TRAKAMATRAKA**  
musika ikuskizuna



**KARAOKEA**



# Zaldibia herri Bizia!



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

# Zaldibian, UDA bizia!

Haur eta gaztetxoei zuzendutako kultur eta kirol ekitaldiak  
2020ko uztailaren 1etik 24ra

## UZTAILAK 1-5 ASTEA

- **UZTAILAK 1, ASTEAZKENA URPEKAKARIAK Bertso Antzerkia. 11:00etan Parke Botanikoan (Euria bada Resti pilotalekuan).**



Norentzat: LH 3.mailatik 6.maila bitartekoentzat eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat

Galtzerdi eta Leotardo igerilekuan topo egin duten lagun bi dira. Ur bazterrean erdi gogaituta daudela, bihurrikeria bat otuko zaie: zergatik ez hondoko tapoia aurkitu eta igerilekua hustu? Eskura dauzkaten gauzeekin urperatzeko jantzia prestatu eta isurbidearen bila abiatuko dira beraiek zelatatzen ari den sorosle petralaren begiradapean. Murgilaldian zehar etengabe egingo dute topo beren gorputzekin; bakoitzak berearekin nola, lagunarenarekin edo igerilekuko gainontzeko erabiltzaileenekin: umeak, helduak, adinduak, aniztasun funtzionala duten igerilariak... Askotariko sentrazioak izango dituzte (arintasuna, itomena, plazera, hozkirria...) eta lantzean gogoeta txiki bat egiteko aukera emango die sentitu eta ikusten ari diren guztiak.

- **UZTAILAK 2, OSTEGUNA. IXABEL AGIRRESAROBÉ IPUIN KONTALARIA Parke Botanikoan (Euria bada Antzokian).**



Norentzat:

10:30ean: HH 4 eta 5 urteko gelako haurrentzat

11:30ean: HH 2 eta 3 urteko gelako haurrentzat

12:15ean: LH 1. eta LH 2. mailako haurrentzat




**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 3, OSTIRALA. MUSIKA SAIOA Parke Botanikoan.** (Euria bada Resti Pilotalekuan) **Musika Eskolako partaideen eskutik.**
  - 11:00etan: Gorputz-perkusioa tailerra LH 3. mailatik 6.maila bitartekoentzat
  - 12:00etan: Musika Eskolako kideen musika saioa.

**UZTAILAK 6-12 ASTEA**

- **UZTAILAK 6, ASTELEHENA. BASO BIZI tailerra Txatxilipurdi taldearen bidez. 11:00etan Parke Botanikoan (Euria bada ere bai, ekarri xira, aterki eta katiuskak!)**



Norentzat: HH 2 eta 3 urteko gelako haurrentzat

Tailer honetan, hurrek basoan barrena murgiltzeko aukera izango dute bertako bizidunak ezagutzuz; lore, landare, intsektu, animalia... Gure natur inguruetan egin daitezkeen ekintza ezberdinak ezagutzeko aukera paregabea!

- **UZTAILAK 6, ASTELEHENA. MATRAKA MA NON TROPO ikuskizuna Parke Botanikoan (Euria bada Resti Pilotalekuan).**



Trakamatraka taldearen eskutik.

10:30ean: LH 1. eta LH 2. mailakoentzat

11:30ean: HH 4 eta 5 urteko gelako haurrentzat

Jazz erritmoan dantzaten duten mahukak, didgeridoo bihurtzen diren jogurtak, jota maite duten maionesa-tapak, "azenarionfonoak", afrikar erritmoz betetako kuboak, melodia kutsakorrek darizkien hodiak... Hori guztia aurkituko dugu ikuskizun honetan: musika eta birziklatzea, sormena eta irudimena, musika-dibertsitatea eta ingurumenarenganako errespetua. Trakamatrakak musika modu atseginean hurbilduko digu, eta erakutsiko digu birziklatzea mundu hobe batera joateko bidea dela. Proiektu honetan, gure gizarteak nahi ez dituen gauzak eraldatuko ditugu, eta musika-tresna zoragarriak sortu.



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 7, ASTEARTEA. GINKANA 11:00etan Parke Botanikoan (Euria bada ere bai) Txatxilipurdi taldearen bitartez.**



Norentzat: LH 5. eta 6.mailakoentzat eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat

Espazio ezberdinetatik zehar, pista bitartez, erronka ezberdinak burutzeko aukera ematen duen ekintza.

- **UZTAILAK 8, ASTEAZKENA. PLAZA IRRINTZIKA haurrentzat berbena 11:00etan Parke Botanikoan (Euria bada Resti Pilotalekuan). Lankuren bitartez.**



Norentzat: LH 3., LH 4. eta LH 5.mailakoentzat

Festa eta mugimendu zaleak garenez, ikuskizun saltsero eta parte hartzaile honekin auzoak, kaleak, plazak eta gure gorputzak girotzen saiatuko gara. Horretarako, euskara ardatz harturik, hitz jokoak, bertsoak, dantzak, jolasak eta kantuak erabiliko ditugu

- **UZTAILAK 9, OSTEAGUNA. Kirol ekintza: IBILALDIA, Egileor auzo aldera 10:00etan parke botanikotik abiatuta. Bidean bisitak eta basoan hamaiketakoa.**



Norentzat: HH 4 eta 5 urteko gelakoentzat



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 10, OSTIRALA. DANTZA GIDATU TAILERRA**  
Iztueta dantza taldeko kideekin tailerra herriko leku ezberdinetan, Parke Botanikoan elkartuta.
  - 10:00 - 11:00: LH 1, 2, 3, eta 4. mailakoentzat
  - 11:00 - 12:00: HH 2, 3, 4 eta 5 urtekoentzat
  - 12:00 - 13:00: LH 5, 6 eta DBH 1 eta 2. mailakoentzat
- **UZTAILAK 10, OSTIRALA. PELIKULA EMANALDIA 22:00etan**  
Plazan (Eurria bada Resti pilotalekuan). Guraso Elkartearen laguntzarekin.

**UZTAILAK 13-19 ASTEA**

- **UZTAILAK 13, ASTELEHENA. MUNDUAN BERBENA**  
Txatxilipurdi taldearen bitartez. 11:00etan Parke Botanikoan (Eurria bada Resti Pilotalekuan).



Norentzat: LH 1., 2., 3., eta 4. mailakoentzat

Euskal Herriko haurrak munduan barrena murgilduko ditugu, Munduan Berbena ikuskizun parte hartzailearekin. Munduko jolas, kanta eta dantzez jai giroan gozatzeko berbena paregabea.

- **UZTAILAK 14, ASTEARTEA BURUARINAK EGITEKO tailerra.**  
Parke Botanikoan (Eurria bada Resti Pilotalekuan).



Norentzat:

10:00etatik 12:00etara: HH 2 eta 3 urte

16:00etatik 18:00etara: HH 4 eta 5 urte



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 15, ASTEAZKENA. DRONE IKASTAROAK**  
**Resti pilotalekuan**

Norentzat:

10:00etatik 13:00etara: LH 6. mailakoentzat

15:00etatik 18:00etara: DBH 1.eta 2.mailakoentzat



**Tailerrak bi zati nagusi izango ditu:** Lehenengoa teorikoa eta bigarregoa praktikoa.

**Atal teorikoa,** dronearen kontzeptu basikoan, funtzionamenduan eta aplikazio ezberdinetan egongo da enfokaturia.

**Atal praktikoa,** dronearen erabileran egongo da enfokaturia, horretarako zirkuitu bat prestatuko dugu oztopoak direla medio.

Tailerreko jarduerak oso dinamiko eta entretenigarriak izango dira, beti ere ikuspuntu didaktikoa kontua izanik.

- **UZTAILAK 16, OSTEGUNA. Kirol Ekintza: IBILALDIA Urtesabel auzo aldera. 10:00etan parke botanikoan eta bidean bisitak eta hamaiketakoa.**



Norentzat: LH1.eta LH2. mailakoentzat

- **UZTAILAK 17, OSTIRALA. BERTSO SAIOA 11:30ean Parke Botanikoan (Euria bada Resti Pilotalekuan). Bertso Eskolako ikasleen eskutik.**



Norentzat: LH 3., LH 4., LH5. eta LH 6. mailakoentzat eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 17, OSTIRALA. KARAOKEA 20:00etan Plazan (Euria bada Resti Pilotalekuan). Guraso Elkartearen laguntzarekin.**



## UZTAILAK 20-26 ASTEA

- **UZTAILAK 20, ASTELEHENA. Kirol Ekintza: IBILALDIA Arruegi, Urreta, Olaeta auzoetara. 10:00etan Parke Botanikoan. Bidean bisitak eta hamaiketakoa.**



Norentzat: LH 3.eta LH 4.mailakoentzat

- **UZTAILAK 21, ASTEARTEA. Kirol Ekintza: IBILALDIA Aiestaran Erreka auzora. 10:00etan Parke Botanikoan. Bidean bisitak, hamaiketakoa eta bainua.**

Norentzat: LH 5.eta LH 6.mailakoentzat

- **UZTAILAK 22, ASTEAZKENA. Takolo, Pololo eta Ximonen ikuskizuna. Parke Botanikoan (Euria bada Resti Pilotalekuan).**



Norentzat:

10:00etan: HH 4 eta 5 urteko gelakoentzat

11:30ean: HH 2 eta 3 urteko gelakoentzat



**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- **UZTAILAK 23, OSTEGUNA. Kirol Ekintza: IBILALDIA Arruegi eta Saturdiko auzoetara. 10:00etan Parke Botanikoan. Bidean bisitak eta hamaiketakoak.**

Norentzat: DBH 1. eta 2. mailakoentzat

- **UZTAILAK 24, OSTIRALA.**

**OPORRAK BAKEAN**

**Euskal Herritik Saharar Errefuxiatu kanpamenduetara bidaltzeko  
MATERIAL BILKETA**

**Honako materiala bilduko da 11:00etatik 13:00etara  
PLAZAN**

- Eskolako materiala: margoak, arkatzak, koadernoak, karpetak, axotak...
- Egoera onean dauden Haur Kirol Arropa eta Oinetakoak
- Ohiko botikak
- Eskuak garbitzeko xaboia



**Saharako haurrak: uda honetan ezin baduzue etorri, gu joango gara!**

**Ondoren SORPRESA!**



- **UZTAILAK 24, OSTIRALA. PELIKULA EMANALDIA 22:00etan Plazan (Euria bada Resti Pilotalekuan). Guraso Elkartearen laguntzarekin.**





**ZALDIBIAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

**AMAIERA**